


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2019/01/08)</b>  Hurrengo saioa: 2018/01/22)	Tailerrak eta ikastaroak	Lehen hiruhilekoan izan diren tailer eta ikastaroen jarraipena aztertu da: - <b>Helduen psiko-estimulazio</b> arekin jarraitzeko asmoa dago. Lahar enpresari ekainera bitarteko aurrekontua eskatu zaio. Ekintza Alegian egiten jarraituko da. - <b>Kakorraz edo gantxilloa</b> : Osatu den taldea aurrerantzean ere antolatuko da ekintzari jarraipena emateko. - <b>Pilates</b> : Kurtso hasieran izena eman zutenekin bilera egitea adostu da, egin ziren taldeak aurrerantzean ere mantendu daitezkeen adosteko. Bilera eguna: otsailaren 1an, 18:50etan. - <b>Zunba</b> : Taldea mantentzen da. Proposamen berria iritsi da: <b>Batukada</b> . Herritar batek egindako proposamena aztertu da eta berarekin hitz egitea adostu da.	Batukada ikastaroa herrian eskaini ahal izateko, baldintzak, egunak, gutxiengo kopurua, ... adostu.
	2019 Lehen sei hilabeteko ekimenen aurreikuspena	<b>Urtarrilak 12</b> : Kontzertua Ormaiztegin <b>Urtarrilak 25</b> : Koplak egiteko tailerra Santa Ageda bezperarako (19:30etan). <b>Otsailak 2</b> : Matximentako herri/bertsu afaria. <b>Otsailak 3</b> : Santa Ageda bezperako koplak kantatzea (12:30etan) <b>Otsailak 16</b> : Herri Batzarra <b>Martxoak 2</b> : Inauteri festa eta afaria. <b>Martxoak 8</b> : Emakumeen eguneko bazkaria (agian hitzaldi, antzerki...edo osatu). <b>Apirilak 6</b> : J.M.Iparragirren heriotzaren urtemuga eta Gernikako arbolaren kimu baten landaketa Zozabarrotxikin <b>Apirilaren 13</b> : Udaberriko auzolana <b>Apirilak 16</b> : Irakurle taldearen tertulia literarioa, Pako Aristiren "Rosa itzuli da" <b>Maiatzak 15</b> : S Isidro bazkaria <b>Maiatzak....</b> : Irteera proposamena Itsasotik eta Basaburuako Itsasotik Itsasura (Lapurdira) <b>Ekainak 23</b> : S Juan bezpera.	Aurreikuspen hauek zehazten joan



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/01/15)</b>  Hurrengo saioa: 2019/01/29	Zaborren inguruko bilera Alegian	Alegiko bilerara joan ez zirenentzat jakinarazpen baten bitartez bileran aipatutakoa bidaliko zaiela adostu da.	Jakinarazpena prestatu
	Santa Ageda bezpera	Santa Agedako ospakizuna dela eta, jakinarazpena prestatu da, bai koplaren prestaketa tailerrerako, baita Santa Ageda bezperako ekitaldia iragartzeko.	Koplaren tailerrerako, urteko ekintza esanguratsuen zerrenda prestatu. Ekintza bakoitzerako irudiak bildu eta aukeraketa egin.
	Mus txapelketa	Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa antolatu da herrian, eta urtarrilaren 26an izango da. Egunean bertan izena eman ahal izango da.	
	Maiatzeko? irteera	Basaburuako Itsasokoekin egon gara eta prest daude elkarrekin Lapurdiko Itsasura joateko. Itsasondokoekin ere ideia hau konpartituko da.	. Itsasondokoekin egon. . Itsasuko harremana zehaztu . Eguna eta egitaraua zehazten hasi.

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2019/01/16)</b>  Hurrengo saioa: 2018/01/30)	Zaborren kudeaketako bilera	- Urtarrilaren 11n Alegian izango den bileraren informazioa eman da eta bertan adierazi beharreko edukia prestatu da. - Herrirako trituradora bat erosteko proposamena aztertu da. Herrirako onuragarria izango litzatekeela irizten da	Edozein herritar trituradoraren erabileraz baliatzea aztertu
	Alegiako konpostagunea	Madurako lurra berrerabiliko da konpostagunearen zorua Garbigunearen mailan jartzeko	
	Alegia-Irizar oinezkoen bidea	Gabiria eta Itsasoko alkateek Foru Aldundikoei eta obra arduradunekin elkartzeko hitzordua jarri diete argiteria, autobus geltokia eta hirugarren karrilaren azken proposamenak lantzeko	
	2019rako aurrekontuak	2018ko sarrera/gastuen balantzearen lehen hurbilpena egin da eta sarrera eta gastu arruntaren kapitulua aztertu dira, 2019 inbertsioetarako geratzen den gerakina eta Itsasoko obrarentzat esleitutako diru-kopuruak kontenplatu.	Diru-laguntzetarako deialdiak baliatzen jarraitu eta hurrengo Herri Batzarrean diru-kontu guztiak partekatu